decir, sin tener en cuenta las fracciones de mes.

Sortzapenaren unean lurraren balioari aplikatu beharreko koefizientea, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, honako hau izango da:

El coeficiente a aplicar sobre el valor del terreno en el momento del devengo, calculado conforme a lo dispuesto en los apartados anteriores, será el siguiente:

<b>SORTZE-ALDIA</b>	<b>KOEFIZIENTEA</b>
Urte 1 baino gutxiago	0,14
Urte 1.	0,13
2 urte.	0,15
3 urte.	0,16
4 urte.	0,17
5 urte.	0,17
6 urte.	0,16
7 urte.	0,12
8 urte.	0,10
9 urte.	0,09
10 urte.	0,08
11 urte.	0,08
12 urte	0,08
13 urte.	0,08
14 urte.	0,10
15 urte.	0,12
16 urte.	0,16
17 urte.	0,20
18 urte.	0,26
19 urte.	0,36
20 urte edo gehiago.	0,45

<b>PERÍODO DE GENERACIÓN</b>	<b>COEFICIENTE</b>
Inferior a 1 año	0,14
1 año.	0,13
2 años.	0,15
3 años.	0,16
4 años.	0,17
5 años.	0,17
6 años.	0,16
7 años	0,12
8 años	0,10
9 años.	0,09
10 años.	0,08
11 años.	0,08
12 años.	0,08
13 años.	0,08
14 años.	0,10
15 años.	0,12
16 años.	0,16
17 años.	0,20
18 años.	0,26
19 años.	0,36
Igual o superior a 20 años.	0,45

Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira.

Estos coeficientes máximos serán actualizados anualmente.

Aurreko paragrafoan aipatutako eguneratzearen ondorioz, indarreko Ordenantza Fiskalak onartutako koefizienteetako bat dagokion legezko gehieneko berria baino handiagoa bada, muga hori zuzenean aplikatuko da soberakin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

Si, como consecuencia de la actualización referida en el párrafo anterior, alguno de los coeficientes aprobados por la vigente Ordenanza Fiscal resultara ser superior al correspondiente nuevo máximo legal, se aplicará éste directamente hasta que entre en vigor la nueva ordenanza Fiscal que corrija dicho exceso.

5. Subjektu pasiboak eskatuta, Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa artikuluko honetako aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen

5. Cuando, a instancia del sujeto pasivo, conforme al procedimiento establecido en el apartado 3 del artículo 4 de esta Ordenanza, se constate que el importe del incremento de valor es inferior al importe de la base imponible determinada con arreglo a lo dispuesto en los apartados anteriores de este





bada, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

## **VII.ZERGA KUOTA:**

### **8. artikulua.**

Zerga honen kuota zerga-oinarriari I. eranskinean adierazi den karga-tasa aplikatuz sortuko da.

## **VIII.ZERGAREN SORTZAPENA:**

### **9.artikulua.**

1.Zergaren sotzapena ondoko kasuetan gertatuko da:

a)Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.

b)Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errearen bat eratzen edo eskualdartzen denean. Sortzapena eraketa- edo eskualdaketa-egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoretarako, transmisioaren datatzat ondokoa hartuko da.

a)Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri Publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo, lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b)Heriotza-ziozko eskualdaketatik, sortzailearen heriotza-data.

2.Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurra edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zergaren itzulketarako eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorenik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilarren 1.295. artikuluko itzulketak

artículo, se tomará como base imponible el importe de dicho incremento de valor.

## **VII.CUOTA TRIBUTARIA:**

### **Artículo 8.**

La cuota de este Impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo I.

## **VIII.DEVENGO DEL IMPUESTO:**

### **Artículo 9.**

1.El impuesto se devenga:

a)Cuando se transmita la propiedad del terreno, ya sea a título oneroso o gratuito, entre vivos o por causa de muerte, en la fecha de la transmisión.

b)Cuando se constituya o transmita cualquier derecho real de goce limitativo del dominio, en la fecha en que tenga lugar la constitución o transmisión.

A los efectos de lo dispuesto anteriormente, se tomará como fecha de transmisión:

a)En los actos o contratos *inter vivos* la del otorgamiento del documento público y, cuando se trate de documentos privados, la de incorporación o inscripción de éstos en el registro público o la de su entrega a un funcionario público por razón de su oficio.

b)En las transmisiones por causa de muerte, la del fallecimiento del causante.

2.Cuando se declare o reconozca judicial o administrativamente por resolución firme haber tenido lugar la nulidad, rescisión o resolución del acto o contrato determinante de la transmisión del derecho real de goce sobre el mismo, el sujeto pasivo tendrá derecho a la devolución del impuesto satisfecho, siempre que dicho acto o contrato no le hubiere producido efectos lucrativos y que reclame la devolución en el plazo de cinco años desde que la resolución quedó firme, entendiéndose que existe efecto lucrativo cuando no se justifique que los interesados deban efectuar



egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

3.Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta egintza zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4.Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko ataleko arauari jarraituz eginez gero.

Testamentua egiteko ahalaren bidezko jaraunspenetan, Zergaren serotzapena ahala modu ezeztazezinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko karietariko bat gertatzem denean gertatuko da.

5.Testamendu egiteko ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jaraunspeneko ondasunen gozamina edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata, behin behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean; eta, bestea, behin betikoa, testamentu egiteko ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamenari bihurtuko zaio, bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

las recíprocas devoluciones a que se refiere el artículo 1.295 del Código Civil. Aunque el acto o contrato no haya producido efectos lucrativos, si la rescisión o resolución se declarase por incumplimiento de las obligaciones del sujeto pasivo del Impuesto, no habrá lugar a devolución alguna.

3.Si el contrato queda sin efecto por mutuo acuerdo de las partes contratantes, no procederá la devolución del impuesto satisfecho y se considerará como un acto de conciliación y el simple allanamiento a la demanda.

4.En los actos o contratos en que medie alguna condición, su calificación se hará con arreglo a las prescripciones contenidas en el Código Civil. Si fuese suspensiva no se liquidará el impuesto hasta que ésta se cumpla. Si la condición fuese resolutoria, se exigirá el impuesto desde luego, a reserva, cuando la condición se cumpla, de hacer la oportuna devolución según la regla del apartado anterior.

En las herencias que se defieran por poder testatorio, el impuesto se devengará cuando se hubiere hecho uso del poder con carácter irrevocable o se produzca alguna de las demás causas de extinción del mismo.

5.Si el poder testatorio se otorgase a favor de persona determinada el derecho a usufructuar los bienes de la herencia sujetos a este impuesto, mientras no se haga uso del poder, se aplicará una doble liquidación de ese usufructo: una provisional, con devengo al abrirse la sucesión, por las normas del usufructo vitalicio, y otra con carácter definitivo, al hacerse uso del poder testatorio, con arreglo a las normas del usufructo temporal, por el tiempo transcurrido desde la muerte del causante, y se contará como ingreso a cuenta lo pagado por la provisional, devolviéndose la diferencia al usufructuario si resultase a su favor. Esta liquidación definitiva por usufructo temporal, deberá practicarse al tiempo de realizar la de los herederos, que resulten serlo por el ejercicio del poder testatorio o por las demás causas de extinción del mismo.



## **VIII.ZERGA KUDEATZEA:**

### **10.artikulua.**

Subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina, eta eredu horrek likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak bilduko ditu. Aitorpen horretan zergari buruzko datuak eta beharrezkoak eta nahitaezkoak direnak ez ezik, kuota adieraziko da.

Aurreko paragrafoan aipatutakoaz gain, zergaren likidaziorako, subjektu pasiboek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute udal-administrazioan:

-Likidazioaren xede den ondasun higiezin eskuratzeko egindako eskritura Publikoa.

-Likidazioaren xede den ondasun higiezin eskualdatzeko egindako eskritura Publikoa.

Eskuratzea edo eskualdatzea irabazpidez egin bada, zergadunak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

### **11.artikulua.**

Honako hauek dira aitorpena aurkezteko eta dagokion kuota ordaintzeko epeak-zergaren sortzapena hasten denetik hasita:

a) *Inter vivos* egintzei buruzko aitorpenak, hogeita hamar asteguneko epean.

b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izango da.

### **12.artikulua.**

1.Aitorpenarekin batera, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztuko da.

2.Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

## **VIII.GESTIÓN DEL IMPUESTO:**

### **Artículo 10.**

Los sujetos pasivos vendrán obligados a presentar ante la Administración Municipal, la declaración correspondiente por el Impuesto según el modelo oficial que facilitará aquella y que contendrá los elementos de la relación tributaria y demás datos necesarios e imprescindibles para el señalamiento de la cuota.

Además de lo referido en el apartado anterior, para la liquidación del Impuesto, los sujetos pasivos deberán aportar a la Administración municipal, la siguiente documentación:

-Escritura pública por la que se adquirió el bien inmueble sobre el que se esté realizando la liquidación

-Escritura pública por la que se ha transmitido el bien inmueble objeto de liquidación.

En los supuestos en los que la adquisición o transmisión hubiera sido a título lucrativo, el contribuyente deberá de aportar la documentación relativa al Impuesto de Sucesiones y donaciones.

### **Artículo 11.**

La declaración deberá ser presentada e ingresada la cuota resultante de la misma en los siguientes plazos, a contar desde la fecha en que se produzca el devengo del impuesto:

a) Cuando se trate de actos *inter vivos*, el plazo será de treinta días hábiles.

b) Cuando se trate de actos por causa de muerte, el plazo será de un año.

### **Artículo 12.**

1.A la declaración se acompañará inexcusablemente el documento debidamente autenticado en el que consten los actos o contratos que originan la imposición.

2.Las exenciones o bonificaciones que se soliciten deberán igualmente justificarse documentalmente.



### **13.artikulua.**

Udal Administrazioak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta interesatuak eskatuz gero luzagarria izango den hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkoztat jo ditzakeen dokumentu guztiak eskatzeko; epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta tributuzehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiriak aitortpena egiaztatze eta likidazioa ezartzeko beharrezkoak badira. Adierazi diren agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze bitarteko hutsak balira, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

### **14.artikulua.**

Hamargarren artikuluan xedatu dena gorabehera, ondoren aipatuko direnak ere zerga-egitatea jakinarazi behar diote Udalari, subjektu pasiboek ezarritako epe beretan:

a) Ordenantza Fiskal honen 6.artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnenan, dohaintzagilea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duena.

b) Arestian aipatu den 6.artikulu horretako b) letrako balizkoak gertatzen direnean, eskuratzailea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona.

### **15.artikulua.**

Halaber, notarioek, egutegiko hiruhileko guztien lehenengo hamabostaldietan, egutegiko aurreko hiruhilekoan egiletsiak dituzten agiri guztien zerrenda igorri behar diote Udalari. Zerrendan, Udal-mugartean zerga honen zergapeko egitatea bete dagerian uzten duten egitateak, egintzak edo negozio juridikoak jaso behar dira, hilburuko egintzak izan ezik. Halaber, sinadurak aintzatesteko edo legeztatze aurkeztu

### **Artículo 13.**

La Administración Municipal podrá requerir a las personas interesadas que aporten en el plazo de treinta días, prorrogables por otros quince a petición del interesado, otros documentos que estime necesarios para llevar a efecto la liquidación del Impuesto, incurriendo, quienes no atiendan los requerimientos formulados dentro de tales plazos, en las infracciones y sanciones tributarias correspondientes, en cuanto dichos documentos fueran necesarios para comprobar la declaración. Si tales documentos sólo constituyen el medio de probar circunstancias alegadas por el interesado en beneficio exclusivo del mismo, el incumplimiento del requerimiento determinará la práctica de la liquidación haciendo caso omiso de las circunstancias alegadas y no justificadas.

### **Artículo 14.**

Con independencia de lo dispuesto en el artículo 10, están igualmente obligados a comunicar a la Administración Municipal la realización del hecho imponible en los mismos plazos que los sujetos pasivos:

a) En los supuestos contemplados en la letra a) del artículo 6 de la presente Ordenanza Fiscal, siempre que se hayan producido en negocio jurídico entre vivos, el donante o la persona que constituya o transmita el derecho real de que se trate.

b) En los supuestos contemplados en la letra b) del artículo 6 citado, el adquirente o la persona a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate.

### **Artículo 15.**

Asimismo, los Notarios estarán obligados a remitir a la Administración Municipal, dentro de la primera quincena de cada trimestre natural, relación o índice comprensivo de todos los documentos por ellos autorizados en el trimestre natural anterior, en los que se contengan hechos, actos o negocios jurídicos que pongan de manifiesto la realización del hecho imponible de este impuesto, en el término municipal, con excepción de los actos



diskieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan. Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, beti ere Arabako Zerga Arau Orokorrean lankidertzarako ezarri den eginbehar orokorra bete behar da.

#### **16.artikula.**

Udal Administrazioak aitortu ez diren zerga-inarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 11. Artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei agindeia egindo die aipatutako aitortpena egin dezaten, tributurratzeak eta, horrela balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

#### **IX.XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurreko 7.2.b).artikuluan xedatu denaren eraginetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onetsi zuen Foru Araua indarrean dagoen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

1.a)Aldi baterako gozamenaren balio ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko 100eko 2a, baina 100eko 70<sup>a</sup> gainditu gabe.

b)Bizarteko gozamenetan, balio ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamedunak 20 urte baino gutxiago dituenetan, eta hori gutxituz joango da, hortik gorako urte bakoitzeko 100eko 1eko proportzioan, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.

c)Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabee gongo balitz, eragin fiskalari, ebazpen-baldintzapeko jabetza osoko transmisiozat joko da.

2.Jabetza soiliko eskubidearen balio, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio

de última voluntad. También estarán obligados a remitir, dentro del mismo plazo, relación de los documentos privados comprensivos de los mismos hechos, actos o negocios jurídicos, que les hayan sido presentados para conocimiento o legitimación de firmas. Lo prevenido en este artículo se entiende sin perjuicio del deber general de colaboración establecido en la norma Foral General Tributaria de Álava.

#### **Artículo 16.**

Siempre que la Administración Municipal tenga conocimiento de la realización de hechos imposables que no hubiesen sido objeto de declaración, dentro de los plazos señalados en el artículo 11, requerirá a los interesados para que formulen dicha declaración, sin perjuicio de las infracciones tributarias en que se hubiera incurrido y de las sanciones, en su caso, procedentes.

#### **IX.DISPOSICIÓN ADICIONAL**

A efectos de lo dispuesto en el artículo 7.2.b), y en tanto permanezca en vigor la Norma Foral aprobatoria del Impuesto sobre transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, deberán observarse las siguientes reglas:

1.a)El valor del usufructo temporal se reputará proporcional al valor de los bienes, en razón de 2 por 100 por cada período de un año, sin exceder del 70 por 100.

b)En los usufructos vitalicios se estimará que el valor es igual al 70 por 100 del valor total de los bienes cuando el usufructuario cuente con menos de 20 años, minorando, a medida que aumente la edad, la proporción de un 1 por 100 menos por cada año con el límite del 10 por 100 del valor total.

c)El usufructo constituido a favor de una persona jurídica, si se estableciere por plazo superior a 30 años o por tiempo indeterminado, se considerará fiscalmente como transmisión de plena propiedad sujeta a condición resolutoria.

2.El valor del derecho de nuda propiedad se computará por la diferencia entre el valor del



osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean aldi baterako diren biziarteko gozamenetan jabetza soila neurtzeko, aurreko lehen zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.

3.Erabileraren eta bizitokii-erabilera errealen balioa ezartzeko, aldi baterako gozamen edo biziartekoaren gozamenaren kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren 100eko 75ari aplikatuko zaizkio.

#### **X.- XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Ez dira berrikusiko Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 Epaia ematen den egunean gauza epaituaren indarra duen epai bidez edo administrazio-erabazpen irmo bidez behin betiko erabaki diren zerga honen ondoriozko zerga-betebeharrak.

Ondorio eskusibo horietarako, aipatutako epaia ematerakoan aurkaratu ez diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak ere egoera kontsolidatutzat hartuko dira.

Bestela, zerga honen ondoriozko zerga-betebeharrak ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera likidatuko dira.

#### **XI.- AZKEN XEDAPENA**

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du hura indargabetzea edo aldatzea erabakitzen den arte

#### **I.ERANSKINA**

##### **KARGA TASA: Ehuneko 18a.**

**Bigarrena.-** Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskal berria 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, ALHAOn eta iragarkien udal taulan iragarkia jarri, interesdunek espedienteaz zertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

usufructo y el valor total de los bienes. Ez los usufructos vitalicios que, a su vez, sean temporales, la nuda propiedad se valorará aplicando, de las reglas del número primero anterior, aquella que le atribuya menos valor.

3.El valor de los derechos reales de uso y habitación será el que resulte de aplicar el 75 por 100 del valor de los bienes sobre los que fueron impuestas las reglas correspondientes a la valoración de los usufructos temporales o vitalicios, según los casos.

#### **X.- DISPOSICION TRANSITORIA ÚNICA**

No serán objeto de revisión las obligaciones tributarias devengadas por este impuesto que, a fecha del dictado de la Sentencia del Tribunal Constitucional 182/2021, hayan sido decididas definitivamente mediante sentencia con fuerza de cosa juzgada o mediante resolución administrativa firme

A estos efectos exclusivos, tendrán también la consideración de situaciones consolidadas las liquidaciones provisionales o definitivas que no hayan sido impugnadas a fecha de dictarse la referida sentencia.

En otro caso, las obligaciones tributarias por este impuesto se liquidarán conforme lo dispuesto por la presente ordenanza fiscal.

#### **XI.- DISPOSICION FINAL**

La presente ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana entra en vigor el mismo día de su publicación en el BOTA, y seguirá vigente hasta que se acuerde su derogación o modificación

#### **ANEXO I**

##### **TIPO DE GRAVAMEN: 18 por 100**

**Segundo.-** Someter la nueva Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (IIVTNU) a trámite de información pública por término de 30 días, mediante anuncio en el BOTA y en el Tablón municipal de Anuncios, para que los interesados o las interesadas puedan



examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

**Hirugarrena.-** Ohartaraztea, Erreklamaziorik aurkezten ez bada, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskal berria (IIVTNU) behin betiko onartutzat joko dela

**Tercero.-** Advertir que en el caso de no se presenten reclamaciones se entenderán definitivamente aprobadas la nueva Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (IIVTNU)

**Errekurtsoak:** Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta haren aurka ezin da inolako administrazio-errekurtsorik jarri, izapide hutsa delako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikulua arabera.

**Recursos:** La presente resolución agota la vía administrativa, y contra ella no cabe interponer recurso administrativo alguno, por ser un acto de mero trámite, artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

#### **Ez dago eztabaidarik**

#### **No hay debate**

**Bozketa:** Alkatesa-Presidentak proposatzen du erabaki-proposamen hori bozkatzea eta Udalabatzak **onartu egiten du** aldeko zazpi (7) botoekin [ 3 EAJ-PNV 3 + 2 PP + 2 EH BILDU], eta kontrako boto batekin (1) [PP: Diego González Fernández]

**Votación:** La Alcaldesa-Presidente somete a votación la transcrita propuesta de resolución, y resulta **aprobada** por 7 votos a favor (3 EAJ-PNV + 2 PP + 2 EH BILDU) y uno en contra (PP: Diego González Fernández).

#### **7.- SORAYA URKIDI ANDREAREN ESKAERA, EIOZ ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN 10. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO EIOZREN HOBARIA APLIKATZEARI BURUZKOA.**

#### **7.- SOLICITUD DE DÑA SORAYA URKIDI RELATIVA A LA APLICACIÓN DE LA BONIFICACIÓN DEL ICIO, PREVISTA EN EL ARTÍCULO 10 DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL ICIO.**

Alkatesa-udalburuak aditzera ematen du Soraya Urkide andreak, Jatorrena SLUren izenean eta ordezkartzan, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 10.a) artikuluan aurreikusitako hobaria eskatu duela, sukaldea eta biltegia eraberritzeko eta JATORRENAko galdara-aretoa aldatzeko obrei dagokienez.

La Alcaldesa-Presidenta da cuenta de que doña Soraya Urkide, en en nombre y representación de Jatorrena S.L.U, ha solicitado la bonificación prevista en el artículo 10.a) de la Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto Municipal sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, respecto las obras de reforma de cocina y de almacén y de modificación de la sala de calderas del JATORRENA

Alkate-udalburuak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 9. eta 10. artikulua irakurri ditu.

La Alcaldesa-Presidenta lee los artículos 9 y 10 de la Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto Municipal sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Ondoren, honako erabaki-proposamen hau egin du:

Tras ello, realiza la siguiente propuesta de acuerdo:



1.- Jatorrena SLU enpresak sustatutako sukaldea eta biltegia eraberritzeko eta JATORRENAko galdara-aretoa aldatzeko obrak udalaren interes berezikotzat jotzea.

2.- Aurrekoaren ondorioz, Jatorrena SLU enpresak sustatutako sukaldea eta biltegia eraberritzeko eta JATORRENAko galdara-aretoa aldatzeko obrei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zergaren % 50eko hobarria aplikatzea onartzea.

3.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

**Errekurtsoak.-** Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka honako errekurtsio hauek jar daitezke.

a) Aukerako eta aurretiazko berraztertze-errekurtsioa jar dakioke Udaltzari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Toki Araubide Juridikoaren oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio-Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua).

b) Administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jar dakioke Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioeko epaitegiei bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 eta 46.1 artikulua).

**Ez dago eztaibaidarik**

**Bozketa:·** Alkatesa-udalburuak transkribatutako erabaki-proposamena bozkatzerara proposatu du, eta bertaratutako zinegotziek **aho batez onartu egin dute.**

## **8.- M8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Alkatesa-Udalburuak 2022ko martxoaren 8a dela-eta EUDELe egindako adierazpen instituzionalaren proposamenaren berri eman du, eta ondoren transkribatu da.

1º.- Declarar de especial interés municipal las obras de reforma de cocina y de almacén y de modificación de la sala de calderas del JATORRENA, promovidas por Jatorrena S.L.U,

2º.- En virtud de lo anterior, aprobar la aplicación de una bonificación del 50% del Impuesto municipal sobre Construcciones, Instalaciones y Obras a las obras de reforma de cocina y de almacén y de modificación de la sala de calderas del JATORRENA., promovidas por Jatorrena S.L.U.

3.- Notificar la presente resolución a la interesada.

**Recursos.-** La presente resolución agota la vía administrativa, y contra ella cabe interponer los siguientes recursos:

a) Recurso de reposición, previo y potestativo, ante el Pleno, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente de la notificación de la presente resolución. (artículo 52 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local en relación con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

b) Recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de dos meses, contado de fecha a fecha, a partir del día siguiente de la notificación de la presente resolución; (artículos 8.1 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa)

**No hay debate**

**Votación:** La Alcaldesa-Presidente somete a votación la propuesta de acuerdo transcrita, y resulta aprobada **por unanimidad** de los concejales presentes

## **8.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 8M**

La Alcaldesa-Presidenta da cuenta de la propuesta de declaración institucional con motivo del 8 de marzo de 2022, elaborada por EUDEL; y que se transcribe a continuación:





**Berdintasunaren Legea berritzea,  
berdintasunaren aldeko konpromisoa  
indartzea**

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarteetan eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nor bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarririk horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzuneko dion tresna bat emateko.

Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte

**Renovar la Ley de igualdad, fortalecer el  
compromiso por la igualdad**

Como cada año, éste 8 de marzo, queremos recordar, recordar y reivindicar la significación de las múltiples y diversas luchas libradas en favor de la consecución de los derechos que históricamente les han sido usurpados a las mujeres. Luchas que, sin lugar a duda, han contribuido al logro de enormes avances en diversas áreas de la vida de las mujeres y que no hubieran sido posibles sin la contribución de las asociaciones de mujeres y del movimiento feminista. Un trabajo colaborativo entre personas individuales, colectivos e instituciones, cada cual, desde su espacio de incidencia sumando fuerzas y compartiendo estrategias en favor del mismo objetivo: la consecución de la igualdad de mujeres y hombres. Aún hoy, tenemos un largo camino por recorrer en la consecución de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres, y por eso es imprescindible seguir reivindicando el día de las mujeres

En este marco, es necesario poner en valor la aprobación en el Parlamento Vasco de la Modificación de la Ley vasca 4/2005 para la Igualdad, enraizada en el contexto idóneo para construir el marco normativo que posibilite dar un salto cualitativo en favor de la igualdad y contra la violencia machista.

Somos conscientes de que en nuestros pueblos y ciudades contamos hoy en día con una ciudadanía cada vez más sensibilizada con la igualdad, cada vez más demandante de medidas en contra de la violencia hacia las mujeres. Por ello, esta nueva Ley es una oportunidad excelente para dotarnos de una herramienta que responda a este clamor social y al compromiso de las instituciones ante la ciudadanía

Estamos ante una modificación de la ley para la igualdad que supone un fortalecimiento de las políticas de igualdad y, por tanto, un avance hacia una sociedad más justa e igualitaria

Todo ello en el convencimiento de que la igualdad de mujeres y hombres, además de ser un derecho humano, es una necesidad

**BASTIDAKO UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DE  
LABASTIDA**  
(ALAVA)

kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdinsareatik, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduz; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobrezia feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorra den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Bastidako (Araba) udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

estratégica para la profundización en la democracia y para la construcción de una sociedad vasca más cohesionada, inclusiva y sostenible social y económicamente

Y en este reto como sociedad, las entidades locales tenemos la oportunidad de dar la mejor de las respuestas al gran desafío que supone el nuevo marco normativo, siempre en estrecha colaboración con la ciudadanía y las asociaciones y movimiento feminista locales.

El compromiso de las entidades locales con la igualdad y con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres ha sido claro. En los últimos 15 años, y dando respuesta a la Ley 4/2005, los ayuntamientos de Euskadi se han ido dotando de estructuras, presupuestos y generando red desde Berdinsarea, para dar respuesta a las necesidades y demandas de las comunidades locales y del conjunto de la ciudadanía vasca. Al mismo tiempo, es necesario seguir avanzando, seguir mejorando y dotando a los municipios, especialmente a los más pequeños, de herramientas para hacer frente a estos retos.

Debemos profundizar en la transversalización de la igualdad en todas las políticas públicas; en el empoderamiento de las mujeres; en la construcción de una sociedad que visibilice, valore y comparta los trabajos de cuidado; en la implicación de los hombres en la igualdad; en la disminución de la feminización de la pobreza; en favor de la libertad sexual de las mujeres; y en la educación como el instrumento más efectivo para el cambio de valores en la construcción de una vida libre para las mujeres en todos ámbitos.

Por ello, éste 8 de marzo, el Ayuntamiento de Labastida (Álava) se compromete a avanzar en el diseño y la planificación de políticas y servicios en materia de igualdad; en el impulso y fortalecimiento de los correspondientes mecanismos de seguimiento y evaluación, así como en la elaboración de normas, instrucciones y directrices que concreten y adecuen a sus respectivos ámbitos de intervención lo establecido en esta ley y en su normativa de desarrollo, así como a dotar de los recursos necesarios.



Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean generoaren eta giza eskubideen ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza bultzatzea, oinarritzeko, derrigorrezko eta etengabeko prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea, gure eskumeneren esparruan, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez, neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitorpena aintzat hartuz.
- Ikuspegi intersektionalaren integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- Herritarren sentsibilizazioan sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.
- Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!

### **Ez dago eztabaidarik**

**Bozketa:** Alkatesa-udalburuak transkribatutako mozioa bozkatzera

Concretamente, queremos comprometernos a avanzar paulatinamente en los siguientes desafíos:

- Reforzar los recursos económicos, personales y técnicos para el desarrollo de las políticas de igualdad.
- Fortalecer el enfoque de género y de derechos humanos en el trabajo a favor de la igualdad, así como en la coordinación entre las diversas áreas del Ayuntamiento.
- Impulsar la formación interna en igualdad del personal de la administración mediante la planificación progresiva de un plan de formación básica, obligatoria y permanente.
- Ampliar el sistema de atención a las víctimas de todas las formas de violencia machista contra las mujeres en el marco de nuestras competencias, avanzando en la mejora de los sistemas de detección temprana, situando en el centro de todas las medidas los derechos de las víctimas y su empoderamiento, y atendiendo al reconocimiento al derecho de reparación de las víctimas.
- Avanzar en la integración de un enfoque interseccional como enfoque inspirador de toda la intervención pública en materia de igualdad de mujeres y hombres.
- Profundizar en la sensibilización ciudadana, garantizando la existencia de campañas y programas institucionales de concienciación social, en particular a hombres y niños, así como al empoderamiento de las mujeres.
- Continuar desarrollando en su conjunto las medidas para la igualdad y para el empoderamiento de las mujeres, favoreciendo la participación del movimiento feminista e incorporando sus aportaciones.
- Perfeccionar, y actualizar de manera periódica, los acuerdos institucionales, así como los sistemas y protocolos de coordinación.

Animamos a la ciudadanía a participar de las movilizaciones convocadas en los municipios con motivo del 8 de marzo

### **No hay debate**

**Votación:** La Alcaldesa-Presidente somete a votación la moción transcrita, y resulta



proposatu du, eta bertaratutako zinegotziek aho batez **onartu egin dute**.

#### **9.- GALDE-ESKEAK**

1.- Daniel García Ruizek (PP) azaldu du aurreko osoko bilkuran Frai Domingo Salazar kalean horma bat hausten zuen errexal baten egoera aipatu zuela; eta galdetu du ea ezer egin den horren inguruan

Alkatesak erantzun du otsailaren 28an hasiko direla zuhaitzak inauten, eta kontratistari esango zaiola zer egin

2.- Daniel García Ruizek (PP) bide publikoan altxatutako estolderia-sareen egoera azaldu du.

Alkatesak erantzun du presazko jarduketa behar duten estolderietako sareak mantentzeko lanak kontratatuta daudela; hasieran aurreikusi ez ziren saretetako lanak zabaltzea aztertuko da.

Ez dago beste gairik

Alkatesa-Presidentak 20:22an osoko bilkura amaitutzat jo du.

Honako hau egiaztatzen dut, Bastidan (Araba), sinadura elektronikoaren datan

Raúl Gómez Iñigo.  
**Behin-behineko idazkaria-kontuhartzailea**

**aprobada** por unanimidad de los concejales presentes.

#### **9.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

1.- Daniel García Ruiz (PP) expone que en un pleno anterior comentó la situación de un árbol que rompía un muro en la calle Fray Domingo Salazar; y pregunta si se ha hecho algo al respecto.

La Alcaldesa contesta que el lunes 28 de febrero empiezan las labores de poda del arbolado, y se comentará a la contratista para ver qué actuación realizar.

2.- Daniel García Ruiz (PP) expone la situación de las rejillas de alcantarillado levantadas en la vía pública.

LA Alcaldesa contesta que están contratadas las labores de mantenimiento en aquellas rejillas de alcantarillado que requieren una actuación urgente; se estudiará la ampliación de las labores de las rejillas que no estaban inicialmente contempladas.

No hay más asuntos que tratar

La Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión a las 20:22 horas.

Doy Fe, en Labastida (Álava), a fecha de la firma electrónica

Raúl Gómez Iñigo.  
**Secretario-interventor accidental**